

**European Network of Ombudspersons for Children  
(Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea)**

**Adierazpen instituzionala “Zaintza-modalitate alternatiboetan dauden haur  
eta nerabeen eskubideen babes eta sustapena”**

**\*ENOCen 28. Batzar Nagusiak adostua, 2024ko irailaren 20ean, Helsinkin**

1

*“Haur eta gazte guztiek bizi beharko lukete beren  
potentzial guztia sustatzen duen laguntza, babes eta  
afektuzko inguru batean”<sup>1</sup>*

## HITZAURREA

ENOCeko kide guztiek uste dute, harrera alternatiboan dauden adingabeek haur talde zaugarrienetakoa eta ikusezinenetakoa osatzen duten arren, beren eskubideak oraindik ere nabarmen kaltetzen direla. Ideia orokor hori oinarri hartuta idatzi da, hain zuzen ere, ENOCen 2024ko adierazpen instituzionala. Kezka orokorra dago gurasoek beren beharrak ase ezin dituztelako, beren burua gurasoen zaintzarik gabe geratzen diren adingabeek ez dutelako beti jasotzen ingurune egoki, seguru eta aberasgarria Estatuaren aldetik. Hala ere, beti ez da hala gertatzen eta horrek kezka sortzen du. Kezkagarria da, era berean, harrera alternatiboetan dauden haur eta gazteek estigmatizazioa eta aurreiritziak jasan behar dituztela, herritarren artean ez baita, orokorrean, beren egoera ondo ulertzen.

ENOCek honela definitzen du adingabeen harrera alternatiboa: agintari publikoek eta beste zerbitzu hornitzaile aitortu batzuek eman behar dituzten zaintzak, herrialdeko/jurisdikzioko legediaren eta praktika administratiboen arabera. Harrera alternatiboa, beraz, beren familiaren zaintzarik jaso ezin duten haur eta nerabeak babesteko bitarteko bat izan behar da. Gurasoen zaintza egokorik gabeko haur eta nerabeen ongizatea babestea eta sustatzea helburu duten zerbitzuak dira. Hala, laguntza egokia izanda, haur edo nerabearen beharrak behar bezala zaindu eta asetzeko gai izan behar dute. Harrera hori hainbat eratan gauzatu daiteke, baina ohikoena familia harrera, egoitza harrera edo senideen harrera formala izaten da.

Adingabeak zaintzeko akordio informalak ere egon daitezke, agintaritzaren esku-hartzerik ez dutenak. Akordio horiek senideekin edo lagunekin adostu daitezke (adibidez, harrera informala familia-ingurunean). Harrera alternatibo informal deitzen duguna. Adierazpen honek harrera alternatibo formala jorratuko du bereziki, hau da, agintarien erabaki baten edo batzuen bidez zehazten dena<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> 64/142. [Haur eta gazteen zaintza alternatiboetarako zuzentarauak](#), Batzar Nagusia, Nazio Batuak, 2010

<sup>2</sup> Adierazpen honetan kasu batzuk ez sartzea erabaki zen; zehazki, adin txikiko errefuxiatu eta asilo eskatzaileen esperientziak edo beste zaintza edo arreta modu batzuetako (esaterako ospitaleko zerbitzu psikiatrikoa, arreta segurua edo antzeko inguruak) adingabeek izandako esperientziak.

2024an, ENOCek bi gai landu zituen bereziki: batetik, haur eta nerabeen harrera alternatiboari buruzko nazioarteko eta eskualdeko arauen aplikazio maila eta, bestetik, haurren defentsa-erakundeek harrera alternatiboaren testuinguruan haur eta nerabeen eskubideen urraketak modu independentean salatu eta konpontzeko orduan jokatzeko funtsezko zeregina. Adierazpen instituzional honek azterketa hau dauka oinarrian: “*Harrera alternatiboan dauden haur eta nerabeen eskubideen babesa eta sustapena*”. Azterketa horretan ENOCeko kide diren 34 erakundeek egin zituzten ekarpenak, beren jurisdikzioen barruan harrera alternatiboan dauden haurren eskubideei buruzko datuak emanez. Halaber, ENYaren (Gazte Aholkularien Europako Sarea) 2024ko proiektuan parte hartu duten gazteen eta ENOCeko kideen iritziak eta esperientzia zuzenak batzen ditu<sup>3</sup>.

Adingabea bere gurasoen edo, hala badagokio, hurbileko beste senide batzuen zaintzapean geratzeko edo bertara itzultzeko ahaleginak ez dira nahikoak izaten. ENOCeko kideek azaldu zutenez, desgaitasunen bat duten haurrak, beharizan konplexuak dituztenak, muturreko pobrezian bizi direnak eta gutxiengoetako kide direnak gainerakoak baino maizago bideratzen dira zaintza alternatiboetara. Estatuak haurren harrera alternatiboa hobetzeko ahaleginak egiten ari diren arren, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 2009ko zuzentarauek (A/RES/64/142<sup>4</sup>), haurren zaintza modalitate alternatiboei buruzkoek, neurri handi batean aplikatu gabe jarraitzen dute, gai honetan erreferentziazko nazioarteko arauak izan arren. Herrialde askotan ez dago kalitatezko harrera alternatiborik eta, beraien interesaren aldekoa izan arren, ez da ahalegin nahikoa egiten adingabeko pertsonak beren familiekin birkonektatzeko. Gainera, adingabeek ez dute laguntza nahikoa jasotzen beren sustraiak, hizkuntza eta kultura zaintzeko. Era berean, harrera alternatiboan dauden haurrek oztopoak aurkitzen dituzte beren egoeran eragiteko, baliabide judizialak eskuratzeko, erabakietan parte hartzeko eta, ahalmenak garatu hala, beren iritziak kontuan hartuak izateko. Faktore negatiboak batzearen ondorioz, gerta liteke adingabeek harrera alternatiboa utzi behar izatea gizartean eta bizitzan aurrera egiteko ezagutza eta gaitasun aski izan gabe.

Adierazpen honekin, ENOCeko kide diren Haurren Defentsa-erakundeek ahalegin berezia egin dute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan (HEK) jasotako xedapenak aplikatu daitezkeen, beren gurasoengatik banatutako adingabeen eskubideei bereziki erreparatuta. Horien artean ageri dira HEK-ko printzipio orokorrak, hau da, haur eta nerabeek entzunak izateko eta beren iritziak behar bezala kontuan hartuak izateko duten eskubidea (12. artikulua); adingabeek beren interes gorena eragiten dioten erabaki guztietan lehentasun moduan aintzat hartua izateko duten eskubidea (3. artikulua); bizitzeko, bizirauteko eta garapenerako eskubidea (6. artikulua) eta diskriminaziorik ezerako eskubidea (2. artikulua). Horren barruan sartzen da, era berean, Estatuak haurra bere borondatearen kontra bere gurasoengandik bereizten ez dela bermatzeko duen betebeharra, nahiz eta ez den halakorik aplikatzen baldin eta bereizketa hori beharrezkoa bada adingabeen interes gorenerako (9. artikulua); eta Estatuak emandako babes eta laguntza berezietarako eskubidea, haurren

<sup>3</sup> Harrera alternatiboari buruzko ENOCen udaberriko lan-saioko iruzkinak (2024ko ekainaren 3a, Tallin, Estonia)

<sup>4</sup> Adingabeen zaintza modalitate alternatiboei buruzko zuzentarauek: ebazpena / NBEren Batzar Nagusiak hartua (64. bilera: 2009-2010) - <https://digitallibrary.un.org/record/673583?ln=en&v=pdf>

harrera alternatiboa barne, betiere behar bezala aintzat hartuz beren jatorri etniko, erlijioso, kultural eta linguistikoa (20. artikulua). Halaber, Nazio Batuen Batzar Orokorrak haurren zaintza modalitate alternatiboei buruz ezarritako zuzentarauak (A/RES/64/142) aitortzen ditugu, eta zuzentarau horiek guztiz aplikatu behar direla defendatzen dugu, gaiaren gainean egokiak diren nazioarteko eta Europako beste arau batzuekin batera<sup>5</sup>.

ENOCeko kide gisa, badakigu gure eskumen instituzionalen eta gure konpromisoaren bidez bermatu behar dugula harrera alternatiboan bizi diren adingabeen eskubideak babestu eta sustatzen direla. Halaber, gure betebeharra da agintari eskudunei erantzukizunak eskatzea baldin eta haur eta nerabe hauen eskubideak eta beharrizanak asetzen ez badira. Familia ingurutik urrunduak izan diren haurrak egoera bereziki zaugarrian daude, eta beren segurtasuna eta ongizatea agintarien berezko erantzukizuna dira.

**Ondorioz, guk, Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sareko kide garen aldetik, honako gomendio hauek aplikatuta beren betebeharrak bete ditzaten dei egiten diegu Estatuei, agintaritzak nazionalak eta eskualdekoei, baita Europako eta nazioarteko erakunde egokiei ere:**

**1. Harrera alternatiboetan dauden haurrek beren iritziak askatasunez adierazteko eta horiek kontuan hartuak izateko duten eskubidea bermatzea, beren ahalmenen arabera, eta, halaber, harrera alternatiboko bizi baldintzei eta beren bizitzari lotutako erabakietan parte hartzeko eskubidea bermatzea, haur eta nerabeen eskubideei buruzko nazioarteko arauetan ezarritakoaren arabera**

- Oro har haur eta nerabeen eskubideen gaineko eta, zehatzago, parte hartzeko eskubidearen gaineko kontzientzia areagotzea harrera alternatiboan bizi diren haurren artean eta eremu honetan lan egiten duten profesionalen artean, prestakuntza programa egoki eta jarraituen bidez;
- Haur eta nerabeei beren adinerako egokiak diren eta beren beharrezkoak diren egokituta dauden informazio eta materiala ematea beren eskubideei eta parte hartzeko eskubideari buruz, beren iritziak adierazi ahal izateko, jakinaren gainean egonda; informazio eta material hori formatu desberdinetan ematea, hala nola liburu ilustratuak, bideoak eta aplikazio mugikorak;
- Haurrei eta nerabeei zuzenduta inguru atsegina eta interaktiboa batean beren eskubideei buruzko hezkuntza lantzeko tailerrak eta informazio saioak antolatzea aldi-aldi.
- Konfiantzazko giroa sortzea adingabearekin, prozesu guztian zehar gardentasuna eskaintzea, eta bere iritziak partekatzeko eroso sentitzen dela eta prozesua eta bere ondorioak ulertzen dituela bermatzea;

---

<sup>5</sup> Ohar kontzeptuala - 2021 Eztabaida orokorraren eguna: Haur eta nerabeen eskubideak eta harrera alternatiboa: Ohar kontzeptuala eta emaitzen txostena. (<https://www.ohchr.org/en/events/days-general-discussion-dgd/2021/2021-day-general-discussion-childrens-rights-and#:~:text=It%20will%20take%20place%20over,Geneva%2C%20in%20the%20online%20format.>) eta Lerch, Véronique eta Anna Nordenmark Severinsson, Anna (2019) Target Group Discussion Paper on Children in Alternative Care. Feasibility Study for a Child Guarantee. Europako Batzardea ((PDF) [Feasibility Study for a Child Guarantee \(researchgate.net\)](#))

- Prozedurak eta baliabideak ezartzea haur eta nerabeen partaidetza ohiko praktika izan dadin erabakiak hartzeko prozesuetan;
- Adingabeak sistematikoki inplikatzeko arreta prozesuaren fase guztietan, baita beraiei dagozkien erabakiak hartu eta sistema diseinatzeko orduan ere. Neurri bereziak hartu behar dira haur txikienean, desgaitasunak dituzten haurren eta beharrezan bereziak dituzten haurren partaidetza garrantzitsua bermatzeko;
- Parte hartzeko mekanismo eta organo iraunkorrak ezartzea (kontseiluak, eztabaida taldeak, gazte klubak eta abar), agintarien babesarekin, harrera alternatiboan dauden edo egon diren haurrek parte har dezaten eta aukera izan dezaten beren iritziak askatasunez adierazteko, beren esperientziak partekatzeko eta zaintzen kalitatea eta prestazioa hobetzen laguntzeko;
- Parte hartzeko eta entzuna izateko eskubidea legez bermatzea, eta aldi-aldi eskubide horren ezarpena ikuskatzea;
- Baliabide eraginkorrak eta justiziarako sarbidea ematea haur eta nerabeei, parte hartzeko eskubiderik ematen ez bazaie.

## **2. Haurrak eta nerabeak beren familien zaintzapean mantentzeko edo familiara itzularazteko ahaleginak indartzea, baldin eta hori adingabearen interes gorenaren mesedetan izango bada**

- Familia bideratutako politika eta programa sozialak garatu eta aplikatzea, doako laguntza psikologikoa barne, adingabeak beren gurasoengandik banantzea prebenitzeko eta gurasoek seme-alabak zaintzeko duten gaitasuna sustatu eta indartzeko;
- Familiei etengabeko babesa eskaintzea familia berriz batzeko prozesuan zehar, horren barruan sartuta prozesu horren garapenaren gaineko jarraipena eta ikuskapena egiteko aldizkako bisitak, familia aholkularitza eta laguntza praktikoa, betiere konfiantza berreskuratzen eta egoerara egokitzen laguntzeko eta trantsizio egokia bermatzeko asmoz;
- Familiei laguntzeko zerbitzu integralak ematea, besteak beste hazkuntza klaseak, aholkularitza, laguntza ekonomikoa eta droga-mendekotasunaren tratamendua, adingabea lekualdatze neurria eragin zuten arazoak jorratzeko eta familia inguru segurua sortzeko;
- Guraso eta haurrentzat eskuragarri dauden babes zerbitzuei buruzko informazioa hedatzeko kate desberdinak erabiltzea, hala nola bitarteko sozialak, telebista eta irratia, webguneak, material inprimatua, lerro zuzenak, komunitateko dibulgazio jarduerak, eskolak, haur eskolak eta osasun-zerbitzuak;
- Egoera bereziki zaurgarrietan dauden adingabeak goiz antzematen direla bermatzeko bitarteko eta prozesu egokiak jartzea martxan, besteak beste osasun eta ongizatearen aldizkako ebaluazioak, zaintzaileentzako eta haurrekin lan egiten duten pertsonentzako prestakuntza, guraso eta zaintzaileentzako laguntza programa, eta adingabea erdigunean jartzen duen jarraipena;
- Laguntza holistikoa eta jarraitua ematea hala behar duten familiei, eta zerbitzu eskudunen arteko koordinazio aktiboa erraztea;
- Familiako ardura ezaren azpian dauden arrazoi nagusiak jorratzea;

- Gurasoen gaitasunaren ebaluazioa diziplina ugaritatik egitea, haurren segurtasuna, interes gorena eta beharrianak zaintzeko. Ebaluazioan, gainera, egoera horietan dauden adingabeen iritzia jaso behar dira, beren gaitasunaren eta heldutasun ebolutiboaren arabera;
- Gizarte zerbitzuen, familien eta bestelako alderdi interesdunen artean komunikazio eta lankidetzaz sendoak sustatzea, familia batzeko eta laguntza emateko ahaleginen ikuspegi koordinatua sortzeko;
- Kontaktua edukitzeko irtenbide praktikoak abiaraztea (telefono-deiak edo bideo-deiak, gutunak, familiaren opariak eta oroigarriak eta abar), betiere harreman fisikoa posible ez bada edo horrek adingabearen interes gorena sustatzen ez badu;
- Ebidentzietan oinarritutako programak eta esku-hartzeak garatu eta aplikatzea;
- Familia berriz batzeko erraztasunak jartze aldera, gurasoei beharrezko laguntza eta zerbitzuak ematea eta aldian-aldian ebaluatzea banatze neurria.

### **3. Kasu bakoitzerako egokiak diren harrera alternatibak bermatzea, banakako balorazio zehatza egin ondoren**

- Familiarengandik bereizteko erabakia hartu aurretik, eskura dauden alternatiben balorazio arduratsua bermatzea, familiaren laguntza barne, beti ere adingabearen interes gorenaren arabera;
- Zaintza modalitate alternatiboen aukerak ebaluatzea (besteak beste, harrera familiak edo egoitza harrera), zehazteko zein harrera motak asetzen dituen ondoen adingabearen banakako beharrak eta interesak, familia erako harrerei eta inguru txikiei (etxe baten antzekoei) lehentasuna emanez, babes eta egonkortasun inguru bat emateko orduan; ebaluazio prozesua ez da gehiegi luzatu behar;
- Ahal den neurrian, haurra edo gaztea ez urruntzea bere lurralde edo kulturatik babes sistemaren parte denean, aurrean izango dituen aldaketak ahalik eta gutxien izan daitezen;
- Banakako ebaluazioa egitea, faktore asko kontuan hartuta (generoa, kultura, hizkuntza, zaurgarritasun berezia eta abar), bai haurraren egoera pertsonalari buruz, bai haren epe laburreko eta luzeko arreta eta garapen beharrei buruz. Ebaluazioa diziplina anitzeko talde batek egin behar du, haurraren eta bestelako alderdi interesdunen partaidetzarekin, bidezkoa bada (familia biologikoa, harrera familia eta abar);
- Adingabeko pertsona bakoitzarentzat banakako arreta planak egitea, beren beharrian eta interes espezifikoak jorratzeko beren arreta ibilbidean zehar, eta aldian-aldian plan horiek berrikusi eta egokitzea, eraginkorrak izaten jarraitzen dutela bermatzeko; haurraren eta, bidezkoa bada, interesa duten beste alderdi batzuen lehentasun eta iritzia ebaluazio prozesu osoan zehar kontuan hartzen direla bermatzea;
- Adingabeei babes psikologikoa ematea, nahitaez, zailtasun emozionalei eta bestelakoei aurre egiteko orduan laguntzeko, baita inguru berri batera sartzen direnean ere;
- Babes-sistemako langileek babes eta prestakuntza egokia dutela bermatzea, eskumen desberdinak garatzeko eta, hala, haurrak eta nerabeak espezialista batetik bestera bideratzea saihesteko;
- Desinstituzionalizazioak jarraitu egin behar du osatu ez den lekuetan, eta,aldi berean, ENYAren ikuspegia kontuan hartu behar da, horren arabera kasu batzuetan, eta

haurren banakako inguruabar espezifikoak kontuan hartuta, egoitza harrera aukerarik egokiena izan baitaiteke haur edo nerabe batentzat;

- Zaintza inguru kontziente eta egonkorra bermatzea adingabeek lotura seguruak osatu ditzaten, zaintzan aldaketak usu egitea saihestuz;
- Harrera familiei babes zabala eta baliabide aski ematea beren kargura dauden haurren beharrianak eraginkortasunez asetzeko eta haurrek eta zaintzaileek elkar ezagutzeko aukera dutela bermatzea, beren kokapenari buruzko erabaki bat hartu baino lehen;
- Harrera espezializaturako familien sistema bat garatzea edo, azken baliabide moduan, adingabearen interes gorenaren mesedetan bada, egoitza harrerarena, harrera alternatiboan dauden adingabeen beharrian bakar eta askotariko horiek ahalik eta ondoen asetzeko.
- Haurren Eskubideen Batzordearen (HEB), haurren interes gorenari buruzko 14. Ohar Orokorra aplikatzea, ebaluazioaz arduratzen diren profesionalen esperientziak arreta egokiena ematen duela bermatzeko.

#### 4. Kalitatezko harrera alternatiboa bermatzea

- Estatuek haur eta nerabeen eskubideak babesteko eta harrera alternatibo egokiak emateko duten betebeharra eta erantzukizuna indartzea, hala behar duen adingabe orori familia harrera eskaintzea lehenetsiz;
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aurreikusitako kalitatezko arauak (gutxienekoak) aplikatzea, bai eta haurrak zaintzeko modalitate alternatiboei buruzko Nazio Batuen zuzentarauak eta bidezko legedi nazionalean aurreikusitakoak ere;
- Arau zorrotzak garatu eta aplikatzea harrera alternatiboko zentroetarako, hainbat alderdi zainduz: segurtasuna, osasuna, hezkuntza edo babes emozionala. Hartara, kalitate altukoa eta koherentea den arreta bermatuko da. Gaztea garatu eta heldu ahala bere arreta eta babes beharrianak aldatu egingo diren arren, arauak ez lukete aldatu behar;
- Harrera alternatiboaren arloko erreformen plangintzak denboran zehar iraunkorrak eta egonkorrak diren soluzioak barne hartzen dituela bermatzea, ebidentzietan oinarrituta; epe luzerako finantzaketa ziurtatuko duena; eta jarraipen- eta ebaluazio-sistema sendoak ezarriko dituena;
- Harrera alternatiboan hornitzaileen, gizarte zerbitzuen eta erakunde komunitarioen artean lankidetzara eta inbertsioa indartzea, harreraren dauden adingabeen beharrianak asetzeko planteamendu orokorra bermatze aldera;
- Indarkeriarik gabeko ingurua bermatzea, haurrak eta nerabeak zainduak eta maitatuak senti daitezen eta beren banakako beharrianak ase daitezen; horren barruan sartzen da haurren esplotazioa aitortu eta prebenitzea.
- Harrera alternatiboetan dauden haurren ongizate emozional, fisiko eta psikologikoari etengabe lehentasuna ematea, beren garapen orokorra eta zorientasuna sustatzeko;
- Beharrezkoak diren bitarteko guztiak ematea, ekonomikoak barne, langileak bertan gera daitezen, bereziki egoitza arretan;
- Babes egokia eta prestakuntza jarraitua eta diziplina anitzekoa ematea harrerako zaintzaileei eta egoitzetako langileei beren gaitasun profesionalak indartzeko;
- Landa eremuen eta hiriguneen artean arau eta aukera berdintasuna bermatzea.
- Adingabea erdigunean jartzen duten ikuskapen edo/eta gainbegiratze independenteak eta aldizkakoak bermatzea, gazteek askatasunez eta errepresalia edo

ondorio negatiboen beldur barik hitz egin ahal izan dezaten; horren barruan sar daiteke bisitak egitea, abisurik gabe, Haurren Eskubideen Instituzio Independenteen aldetik; ikuskapen prozesuaren ondorioen jarraipena egiten dela eta eskatzen den banako beste edozein ekintza gauzatzen dela bermatzea.

**5. Adingabeak bere familiarekin, hurbileko beste pertsona batzuekin eta bere sustrai etniko, kultural, erlijioso eta linguistikoekin duen harreman esanguratsua mantentzea**

- Haur eta nerabeek beren inguru kultural, etniko eta familiarrarekin dituzten loturak aktiboki babestea, bizi familiarrerako eta nortasunerako eskubidea guztiz errespetatu eta sustatzen dela bermatuz;
- Harrera alternatiboan dauden adingabeek beren senideekin eta beren bizitzetan esanguratsuak diren beste pertsona batzuekin harreman erregularra dutela bermatzea, adingabeon interes gorenaren kaltetan ez bada; harreman horiek positiboak eta onuragarriak izaten jarraitzen dutela bermatzeko orduan sortzen den edozein arazo jorratzea;
- Adingabeen eta beren senideen arteko harremanak mantentzeko buruzko prozesuan adingabeon iritzia aktiboki bilatzen direla eta kontuan hartzen direla bermatzea, bidezkoak diren erabaki guztietan partaide bihurtuta;
- Askotariko moduak eskaini eta sustatzea haurrek kontaktu erregularra izan dezaten beren gurasoekin, neba-arrebeekin, senideekin eta lagunekin, harreman garrantzitsu hauek mantendu eta babesten direla bermatuz;
- Harrera familiei prestakuntza eta orientazioa ematea haurrak beren familia biologikoekin lotura mantentzeko prestatuz eta animatuz, bidezkoa denean; gurasoei babesa ematea beren seme-alabekin harremana izaten jarrai dezaten;
- Harrera zaintzaileentzat eta beste zaintzaile batzuentzat laguntza eta programa espezializatuak diseinatu eta eskaintzea, adingabeei beren sustraiak mantentzen laguntzeko;
- Harrera zaintzaileei eta beste zaintzaile batzuei adingabeen lotura kultural, etniko eta familiarrak zaindu eta elikatzen lagunduko dieten programa espezializatuak diseinatu eta ematea;
- Zaintzaileei prestakuntza ematea, haurren jatorri etniko, kultural eta linguistikoak errespetatu eta txertatu ditzaten beren eguneroko zaintzetan.

**6. Harrera alternatiboan dauden adingabeak sistematikoki prestatzea bizitza independenterako eta erkidegoan integratzeko**

- Tutoretzapean egoteari uzten dioten gazteei laguntza ematea plan edo programa profesional eta pertsonalak garatzeko, beren egoera ebaluatu eta independentziaz bideratuta. Beren beharrak eta eskariak eta zerbitzu egokietan eskuragarri dauden bitartekoak kontuan hartzea;
- Haur eta gazteei beren interesen arabera hezkuntza eta lanbide mailan izango duten ibilbidea aukeratzeko laguntza areagotzea. Heldutasunerako trantsiziorako prestaketa goiztiarra eta iraunkorra lehenestea, adinez nagusi bihurtu baino urtebete lehenago soilik hasi beharrean;

- Arretaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzea, banakako babesa eskaintzeko ebaluazio sanitarioak eginez eta erantzun egokiak emanez arazo fisiko edo psikologikoen aurrean;
- Zaurgarritasun espezifikoak kontuan hartzea, besteak beste gurasotasun goiztiarrak, desgaitasunak, osasun mentaleko arazoak edo bidaiderik gabeko adingabeen egoera. Prebentzioa bereziki lantzea, horren barruan sartzen direlarik jarrera arriskutsuak, sexu heziketa eta adikzioak;
- Profesionalei eta zainzaileei beharrezkoak diren tresnak ematea gazteei independentziarako bidean laguntzeko, inplikaturako eragile gutziekiko koordinazio eraginkorra bermatuz, zerbitzuak antolatuz eta profesionalentzako babes arlo espezifikoak eskainiz;
- Profesionalei prestakuntza egokia ematea, batez ere psikologoei eta gizarte langileei, horren barruan sartuta harrera alternatiboan dauden adingabeen eskubideei eta zerbitzuak eskuratzeko bideei buruzko modulu espezializatuak, gazteei harrera alternatiboa uzten laguntzeko, administrazio prozedura egokien bidez;
- Haurrei eta gazteei informazioa ematea, eta bermatzea guztiz ulertzen dituztela beren eskubideak eta eskura duten laguntza; halaber, babes ekonomiko eta psikosoziala ematea, adingabeek babes mekanismoak eta harrera alternatiboak uzten dituztenean, baliabideak eskuratzeko bideak erraztuz eta sinplifikatuz (etxebizitza, hezkuntza, lanbide heziketa, beka eta abar);
- Loturak sustatu eta garatzea emozio, hezkuntza eta laguntza mailan, besteak beste tokiko tutoretza programak, jarraipen erregularrak eginez (bilerak, telefono deiak, etxerako bisitak eta abar), gazteek harrera alternatiboak utzi ondoren, boluntario helduekin harreman esanguratsuak ezarri eta babes eta elkartasun sareak handitze aldera;
- Itzultzeko eskubidea sortzea, gazteei, beren egoera egonkortu ahala, eta harrera alternatiboa utzi ondoren, jasotzen duten laguntza egokitzeko edo eteteko aukera emanez, eta, aldi berean, bertara itzuli ahal izateko aukera bermatuz, baldin eta aldaketa edo ezustekoen ondorioz hala behar badute;
- Estatuak eta alderdi interesdunek neurri, ekintza, sentsibilizazio kanpaina eta bestelako jardura egoki guztiak garatu beharko lituzkete harrera alternatiboan dauden edo egon diren adingabeen estigmatizazioa prebenitu eta gainditzeko.

## 7. Harrera alternatiboaren ikuskapena eta kontrola indartzea

- Harrera alternatiboko zentroak ikuskatzeko eta gainbegiratzeko arau eta prozedurak zehazten dituzten esparru arautzaile argiak garatu eta aplikatzea bai sektore publikoan bai pribatuan;
- Ikuskapen sistemen independentzia bermatzea, ikuskapenerako kanpo erakundeetara joz;
- Arauak betetzen direla bermatzea, aldizkako ikuskapenen bidez, eta harrera alternatiboko zentrozen aurretiazko abisurik gabe. Haur eta nerabeen eskubideen instituzio independenteek ere egin behar dituzte bisitak eta hobekuntza gomendioak;
- Ikuskapen eta kontrol erakundeek finantzaketa eta baliabide nahikoak ematea harrera alternatiboko zentrozen ikuskapen zorrotz eta eraginkorra ahalbidetzeko;



- Haurren arretoa zerbitzuei eskatzea aldizkako txosten zehatzak aurkez ditzatela horien funtzionamenduari, zaintza praktikei eta adingabeen ongizateari buruz. Ikuskapenek txosten zorrotzak egiten dituztela bermatzea, adingabeen iritzia, beharrezkoak diren hobekuntzak eta egoeraren eraginak nabarmenduz;
- Ikuskapen eta gainbegiratze prozesuetan eremu desberdinetako alderdi interesdunak inplikatzeko, besteak beste gizarte langileak, langile homologoak, haurren psikologoak eta langile juridikoak. Alderdi interesdunen prestakuntza bermatzea ikuskapen prozesuetan eta harrera alternatiboan dauden haurrekiko elkarrekintzetan, informazio zehatza jasotze aldera;
- Kanal seguru eta anonimoak sortzea harrera alternatiboan dauden haur eta gazteek beren iritzia eman ahal izan dezaten beren esperientziei eta bizi baldintzei buruz, beren ahotsak ikuskapen prozesuaren parte integrala direla bermatuz.
- Harrera alternatiboko zentroen funtzionamendu eta baldintzei buruzko datuak batu eta aztertzea, erabaki politikoak funtsatzeko eta asistentzia praktikak hobetzeko;
- Neurri proaktiboak, estrategikoak eta sortzaileak hartzea harrera alternatiboan dauden adingabeek aukera izan dezaten haur eta nerabeei egokitutako salaketa mekanismo eraginkorrak eskuratzeko, beren eskubideen urraketen aurrean erreparazioa eskaintze aldera.



Europar Batasuneko Herritartasun, Berdintasun, Eskubide eta Balioen Programaren kofinantzaketa du ENOCek. Argitalpen honen edukiak ENOCen iritzia baino ez du azaltzen, eta haren erantzukizun eksklusiboa da. Europako Batzordeak ez du erantzukizunik hartzen bertan jasotzen den informazioari eman dakioken erabileraz.